

GAUR ERE EZ NAIZ JAIOKO

Unai Baztarrika

Beasain, 17 urte

Edertasun erreinuaren gisan,
hego haizeak urraturiko hodeiaren antzera
maitasunik gabeko
maitalea bezala;
erasotua;
ekialdeko perfume
ozpindua naiz,
inoiz ferekatua izan ez den
urdanga bezala

Belarrik ez duen larrean
jatera kondnaturik,
zigorturik,
dagoen ardi beltza;
paradisuan jaio baina
infernuan hilko den goi-aingerua dirudit,
espetxean noiz hilko duten
zai dagoen
hiltzaile errugabea,
sentitzen naiz.

Ezerezaren pareko,
laku izoztuan itotzear
den arrantzale,
jaka zuriak,
jertse gorriak,

galtzerdi kolorgeak,
inoiz garbituko
ez dituen neskame;
ipar haizeak izoztuko dituen
parajeetan erretzea
desio duen,
egur zati
okerra nauzue.

Desioaren frutu,
maitasunaren sustrai,
adiskidetasunaren adar,
eskuzabaltasunaren hostoez;
lehortzera kondenatua dagoen
zuhaitz perfektua;
behin erran zenidan,
baita bi alditan ere,
urmaelean geldirik
usteltzen ari den
ur geldoa bezala
maite ninduzula, azken batean:
psikiatrikoan zaude,
agian, eroa.

Egunero larrua jo arren,
gozatzerik
ez duen puta zabarra;
inoiz bere maitalea
kolpez akabatuko duen
maitemindua;
kaiolako txorien begirada jausia

izatea maite nuke,
beti ikusmira
bera ikusiz, beharbada
asperrak jota
hilko nintzateke;
bakardadean zentzea,
gainerakoengandik urrun,
bere buruaz beste egingo duen,
ermitaua nauzue.

Basoaren sakonean,
inork zapaldu
ez duen lur sailaren jabe
izan eta,
lur horren bila galtzen
den esploratzailea,
urik ez duen bere sail birjinean,
egarriz hilko dena;
laratzeko eltzeetan,
bere ama zenaren
burmuinak egosten dituen
sukaldaria;
luxuan bizi arren,
negar egiten
ikasi ez duen
burgesaren semea;
baina ni, benetan
mundura jaioko ez den ume abortatua naiz.